

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

HONDARRIBIKO UDALA

*Dirulaguntzen oinarri espezifikokoak behin betiko onartzeari dagokion akordioa, «Hondarribiko bonoak» Hondarribiko hurbileko salmenta fisikoaren sarea indartzeko bonuak banatzeko kanpainari dagokiona.*

Udalbatzak 2025eko abenduaren 18an egindako ohiko bilkuran dirulaguntzen oinarri espezifikokoak behin-behinean onartu zituen, «Hondarribiko bonoak» Hondarribiko hurbileko salmenta fisikoaren sarea indartzeko bonuak banatzeko kanpainari dagokionak.

Iragarkia 2026-01-16an 10. zk. duen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta 30 lanegunez jendaurrean egon da, baita udal web gunean eta udal iragarki oholean ere 2026-01-16tik 2026-02-27ra ere.

Jendaurreko epea bukatu eta erreklamazio edota iradokizunik aurkeztu ez denez, hasierako onespenaren akordioa behin betikoa izango da.

Oinarrien behin betiko testua honakoa da:

*«Hondarribiko bonoak» Hondarribiko hurbileko salmenta fisikoaren sarea indartzeko bonuak banatzeko kanpainarako dirulaguntzen oinarri espezifikokoak.*

1. Dirulaguntzaren xedea.

Oinarri hauen helburua da «Hondarribiko bonoak» bonu-kanpainaren oinarri arautzaileak ezartzea, hurbileko salmenta fisikoaren sarea indartu eta tokiko sare ekonomikoa indartzeko.

Horretarako, ondasunak eta zerbitzuak erosteko dirulaguntzak emango dira, deialdi honetara atxikitako txikizkako merkataritza eta/edo zerbitzu establezimenduetan.

2. Kanpainaren helburuak.

1. Hiriko merkataritza-jarduerarekin lotura duten merkataritzako eta zerbitzuen sektoreko enpresaburu autonomoei eta mikroenpresa eta enpresa txikiei indartzen eta sendotzen laguntzea.

2. Eskaria estimulatuta, herritarrei eta enpresa-sareari laguntzea, haiengan oinarritzen baitira merkataritza-sektorea eta hiriko merkataritza-jarduera.

3. Hiriko merkataritza-jarduera dinamizatzea, hark udalerrian eta eskualdean duen eragina sustatuta.

4. Hiriko merkataritza-jarduerarekin zuzeneko lotura duten merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduen maniobra-funtsa hobetzea.

5. Kontsumoan egon den moteltzea arintzea. Moteltze hori kontsumitzailearen egoera ekonomikoaren ondorioa da, bai eta kontsumoa beste sektore batzuetara bideratu izanaren ondorioa ere, une honetan aisia, hezkuntza edo etxebizitzaren sektoreetara bideratu baita kontsumoa, merkataritza-jardueraren aurretik eman baitzaie lehentasuna.

6. Hondarribiko bizilagunek herriko merkataritza-zerbitzu establezimenduetan erosketak egiteko ohitura sendotu eta gastu-ihesa murriztea.

AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA

*Acuerdo relativo a la aprobación definitiva de las bases específicas del programa «Hondarribiko bonoak» campaña de reparto de bonos para reforzar la red de venta física de proximidad en Hondarribia.*

El Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria celebrada el día 18 de diciembre de 2025 aprobó inicialmente las bases específicas del programa «Hondarribiko bonoak» campaña de reparto de bonos para reforzar la red de venta física de proximidad en Hondarribia.

El anuncio fue sometido a información pública durante el plazo de 30 días hábiles mediante inserción de anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa núm. 10 de 16-01-2026, así como en la web municipal y en el tablón de anuncios municipal desde el 16-01-2026 al 27-02-2027.

Transcurrido el plazo de la exposición pública sin que se hayan presentado reclamaciones y/o sugerencias, el acuerdo de aprobación inicial se eleva a definitivo.

El texto definitivo de las bases es el siguiente:

*Bases específicas del programa «Hondarribiko bonoak» campaña de reparto de bonos para reforzar la red de venta física de proximidad en Hondarribia.*

1. Objeto de la subvención.

Las presentes bases tienen por objeto establecer las bases reguladoras de la campaña de bonos «Hondarribiko bonoak», para reforzar la red de venta física de proximidad, con el objetivo de fortalecer el tejido económico local.

Para ello, se subvencionará la adquisición de bienes y servicios en los establecimientos minoristas de comercio y/o servicios adheridos a esta convocatoria.

2. Objetivos de la campaña.

1. Propiciar el fortalecimiento de las personas empresarias autónomas y las micro y pequeñas empresas del sector comercial y de servicios relacionados con la actividad comercial urbana.

2. Favorecer tanto a la ciudadanía como al tejido empresarial sobre la que reposa el sector comercial y la actividad comercial urbana, estimulando la demanda.

3. Dinamizar la actividad comercial urbana promoviendo su repercusión en el ámbito local y comarcal.

4. Mejorar el fondo de maniobra de los establecimientos comerciales y de servicios relacionados con la actividad comercial urbana.

5. Paliar la ralentización del consumo consecuencia de la propia situación económica del consumidor y de un desplazamiento del consumo hacia sectores de ocio, educación o vivienda priorizados en estos momentos frente a la actividad comercial.

6. Reforzar el hábito de compra de los vecinos de Hondarribia en los establecimientos comerciales de la localidad y reducir la fuga de gasto.

### 3. Dirulaguntza zein aurrekontu-kredituri egozten zaion.

Diru-laguntza hauetarako aurrekontu-kreditua deialdia egiten den ekitaldiko udal aurrekontua onartu ondoren zehaztuko da. Nolanahi ere, Udalak oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa dagoela bermatuko du, indarrean dagoen aurrekontu-araudian xedatutakoaren arabera.

Dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du, inola ere, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez bakarka, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

### 4. Dirulaguntzen izaera.

Programa honen esparruan ematen diren dirulaguntzak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzat hartuko dira.

### 5. Epeak eta iraupena.

Honako epe hauek ezarriko dira:

1. 2026ko urtarrilaren 26tik otsailaren 9ra (biak barne), establezimenduak atxikitzeko.

2. 2026ko martxoaren 2tik apirilaren 1era (biak barne), ondasun eta zerbitzuak erosteko deskontu-bonuak trukatzeko epea ezartzen da.

Data horiek urtero aldatu ahalko dira, jaiegunen egutegiaren edo bestelako arrazoen arabera, eta urteko deialdian zehaztuko dira.

### 6. Onuradunak.

Laguntza hauen onuradunak, Hondarribian erroldatuta dauden eta bonuak trukatzeko garaian 18 urte beteta dituzten pertsona fisikoak izango dira.

### 7. Dirulaguntza jaso dezakeen jarduera.

1. Kanpainari atxikita dauden eta hiriko merkataritza-jarduerarekin erlazioa duten merkataritza eta zerbitzu-establezimenduetako kontsumoa lagunduko da diruz, establezimendu horietan eskuragarri egongo den mota bakarreko deskontu-bonu baten bidez.

2. Erosketa-bonu horietako bakoitza 10 euroko deskontu-bonu bat izango da, eta atxikitako establezimenduetan egiten den 30 euro edo gehiagoko erosketan aplikatu ahal izango da.

3. Deskontu-bonuak trukatzeko erabiliko den sistema hiriko merkataritza-jarduerarekin lotura duten merkataritza- edo zerbitzu-establezimenduetan trukatu den bonua izango da, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa zorrotz betez, betiere.

Deskontu-bonuak trukatzeko ezarritako epean, establezimenduek aktiboki eskainiko dituzte bonuak, eta erosketaren ulean trukatu dituzte.

Deskontu-bonuen aplikazioa establezimenduek beraiek egingo dute; ondasunak eskuratzen edo zerbitzuak hartzen dituen onuraduna EAEn bizi dela egiaztatuta eta identifikatuta.

Betebehar horiek betetzen ez badira, berehala emango zaio programatik baja establezimenduari.

4. Horretarako, behar diren mekanismoak jarriko dira aurreko apartatuan adierazitakoa bermatzeko eta egiaztatzeko, eta, halaber, behar diren tresnak jarriko dira erosketa-tiketetan identifikatutako pertsona bakoitzeko hiru deskontu-bonuen muga kontrolatzeko.

5. Pertsona bakoitzak, gehienez, hiru deskontu-bonu batu ahal izango ditu, hogeita hamar euroko balioarekin. Onuradunek hiru establezimendu desberdinetan erabili beharko dituzte des-

### 3. Crédito presupuestario al que se imputa la subvención.

El crédito presupuestario destinado a las presentes subvenciones se determinará una vez aprobado el presupuesto municipal correspondiente al ejercicio en que se efectúe la convocatoria. En cualquier caso, el Ayuntamiento garantizará la existencia de crédito adecuado y suficiente para la financiación de las subvenciones previstas en las presentes bases, de conformidad con lo dispuesto en la normativa presupuestaria vigente.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que supere el coste de la actividad subvencionada, aisladamente, o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos.

### 4. Naturaleza de las ayudas.

Las ayudas que se concedan en el marco del presente programa tendrán la consideración de subvenciones a fondo perdido no reintegrables.

### 5. Plazos y duración.

Se establecerán los siguientes plazos:

1. Del 26 de enero al 9 de febrero de 2026 (ambos incluidos) para la adhesión de establecimientos.

2. Del 2 de marzo al 1 de abril de 2026 (ambos incluidos), se establece el periodo de canje de bonos descuento para adquisición de bienes y servicios.

Estas fechas podrán variar cada año, en función del calendario festivo u otras cuestiones, y se establecerán en la convocatoria anual.

### 6. Personas beneficiarias.

Se considerarán personas beneficiarias de estas ayudas, las personas físicas, empadronadas en Hondarribia y que tengan cumplidos los 18 años para el periodo de canje de bonos.

### 7. Actividad subvencionable.

1. Se subvencionará el consumo en los establecimientos comerciales y de servicios relacionados con la actividad comercial urbana adheridos a la campaña, a través de un único tipo de bono-descuento disponible en los mismos.

2. Cada uno de los bonos tendrá la consideración de bono descuento por un valor de 10 euros sobre una compra mínima de 30 euros en los establecimientos adheridos.

3. El sistema de canje de bonos-descuento utilizado será el de bono canjeado por los propios establecimientos comerciales o de servicios relacionados con la actividad comercial urbana y siempre en cumplimiento estricto de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales.

En el periodo establecido para el canje de bonos-descuento, los establecimientos ofrecerán activamente los bonos y los canjearán en el momento de la compra.

La aplicación de los bonos-descuento será efectuada por los propios establecimientos tras la comprobación de la residencia en Hondarribia y la identificación de las personas beneficiarias en el momento de la adquisición de los bienes o prestación de servicios.

El incumplimiento de estas obligaciones supondrá la baja inmediata del establecimiento del programa.

4. A tal sentido, se habilitarán los mecanismos necesarios para garantizar y comprobar lo reflejado en el apartado anterior, así como se dispondrá de las herramientas necesarias para controlar el límite de 3 bonos-descuento por persona identificada en los tickets de compra.

5. Cada persona podrá sumar un máximo de tres bonos-descuento por un valor de treinta euros. Dichos bonos-descuento deberán ser utilizados por cada persona beneficiaria en tres es-

kontu-bonuak. Era berean, deskontu-bonuak erabili ahal izateko gutxienerako erosketa hogeita hamar eurokoa izango da, eta horietatik 10 euro deskontatu ahal izango dira.

6. Establezimenduek modu aktiboan eskainiko dizkiete bonuak bezero guztiei, harik eta kanpaina bukatzen den arte. Establezimenduek ezin izango dute bonurik gorde, ez atxiki, ezta artikulu jakin batzuen salmentarako erabili ere. Betebehar horiek betetzen ez badira, berehala emango zaio programatik baja establezimenduari. Gainera, ez-betetze horrek zehapen-prozedura bat hastea ekar dezake.

8. *Bonuen emakida, trukea, kopurua eta zenbatekoa.*

Establezimenduek sortu eta balioztatuko dizkiete bonuak onuradunei, [www.hondarririkobonoak.eus](http://www.hondarririkobonoak.eus) webgunean aldeaz erretik onartu eta balioztatutako profilaren bidez.

Bonu bakoitzak banakako segurtasun-kode bat izango du. Kode horri esker, bonuaren benetakotasuna egiaztatu ahal izango da.

Deskontu-bonuen truke-aldian, 10 €-ko bonuak trukatu ahal izango dira gutxienerako 30 €-ko erosketa bakoitzeko. Onuradun bakoitzak deskontu-bonuak hiru establezimendu desberdinetan erabili beharko ditu.

9. *Establezimenduek programan sartzeko bete beharreko baldintzak.*

1. «Hondarririko Bonoak» programan sartu ahal izango dira bere egoitza soziala edo/eta establezimendua Hondarribian kokatuta duten eta hiriko merkataritza-jarduerarekin lotura duten merkataritza- edo zerbitzu-establezimenduak, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Ordenantza honen I. eranskinean jasotako Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafe edo multzoren batean kokatutako jarduera batean aritzea eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea.

b) Enpresaburu autonomo, mikroenpresa edo enpresa txiki izatea, Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko (EB) 651/2014 Erregelamenduaren I. eranskineko 2.2 eta 2.3 artikuluetan adierazitakoaren arabera. Erregelamendu horrek laguntza-kategoria batzuk barne-merkatuarekin bateragarri direla deklaratu du, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz:

– ETEen kategorian, enpresa txikitat hartzen dira, 50 langile baino gutxiago izanik, urteko negozio-bolumenean edota urteko balantze orokorrean 10 milioi euroko zenbatekoa gainditzen ez dutenak.

– ETEen kategorian, mikroenpresatzat hartzen dira, 10 langile baino gutxiago izanik, urteko negozio-bolumenean edota urteko balantze orokorrean 2 milioi euroko zenbatekoa gainditzen ez dutenak.

c) Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea, eta, hala badagokio, dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere bai.

d) Programan sartzeko beharrezkoa den erantzukizunpeko adierazpenean ezarritako baldintzak.

2. Ildo horretan, bestelako betebeharrak alde batera utzita, Hondarribiko Udalak edozein unetan eskatu ahal izango ditu gutxienerako eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko agiriak.

Horiek betetzen ez dituzten entitateek aurkeztutako eskabiak ez dira aintzat hartuko, ez onartuko.

10. *Atxikitze eskaera burutzeko prozedura.*

Atxikitze eskaerak web orriaren bidez egin behar dira [www.hondarririkobonoak.eus](http://www.hondarririkobonoak.eus).

Atxikimendua eskatzeko epea 5. atalean ezartzen da.

tablecimientos diferentes. Asimismo, la compra mínima para poder utilizar los bonos-descuento será de treinta euros, de los que se podrán descontar 10 euros.

6. Los bonos serán ofrecidos activamente por los establecimientos a todos los clientes hasta que finalice la campaña. Los establecimientos no podrán reservar ni retener bonos, ni destinarlos a las ventas de artículos concretos. El incumplimiento de estas obligaciones supondrá la baja inmediata del programa. Además, dicho incumplimiento puede derivar la incoación de un procedimiento sancionador.

8. *Concesión, canje, número e importe de los bonos.*

Los establecimientos serán los encargados de generar y validar los bonos a las personas beneficiarias a través de su perfil previamente aceptado y validado en la web [www.hondarririkobonoak.eus](http://www.hondarririkobonoak.eus).

Cada bono estará sujeto a un código individual de seguridad. Este código permitirá verificar la autenticidad del bono.

Durante el periodo de canje de los bonos-descuento, se podrán canjear los bonos de 10 € por cada compra mínima de 30 €. Los bonos-descuento deberán ser utilizados por cada persona beneficiaria en tres establecimientos diferentes.

9. *Requisitos de los establecimientos para la adhesión al programa.*

1. Podrán adherirse al programa «Hondarririko Bonoak», aquellos establecimientos comerciales y de servicios relacionados con la actividad comercial urbana que tengan su sede social y/o establecimiento comercial en Hondarribia y que cumplan los siguientes requisitos:

a) Dedicarse y estar dado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas en una actividad que esté encuadrada en alguno de los grupos y/o epígrafes del Impuesto de Actividades Económicas recogidos en el anexo I de la presente ordenanza.

b) Ser personas empresarias autónomas, microempresas o pequeñas empresas, de conformidad con lo señalado por los artículos 2.2 y 2.3 del anexo I del reglamento (UE) n.º 651/2014 de la Comisión, de 17 de junio de 2014, por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación 107 y 108 del Tratado:

– En la categoría PYME, se define a una pequeña empresa como la que ocupa a menos de 50 personas y cuyo volumen de negocios anual o cuyo balance general anual no supera los 10 millones de euros.

– En la categoría de PYME, se define a una microempresa como la que ocupa a 10 personas y cuyo volumen de negocio anual o cuyo balance general anual no supera los 2 millones de euros.

c) Hallarse al corriente con Hacienda y Seguridad Social y, en su caso, de las obligaciones de reintegro de subvenciones.

d) Condiciones establecidas en la declaración responsable necesaria para la adhesión al programa.

2. En tal sentido, sin perjuicio de cuantas otras formalidades pudieran estar obligadas a cumplir, el Ayuntamiento de Hondarribia podrá solicitar en cualquier momento cualquier documento acreditativo del cumplimiento de tales requisitos mínimos.

No se tendrán en cuenta ni admitirán las solicitudes presentadas por entidades que no cumplan con los mismos.

10. *Procedimiento para efectuar la solicitud de adhesión.*

Las solicitudes de adhesión deberán hacerse a través de la página web [www.hondarririkobonoak.eus](http://www.hondarririkobonoak.eus).

El plazo para solicitar la adhesión se establece en el apartado 5.

### 11. Atxikitzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Establezimenduak edo jarduerak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Atxikimendurako datu orokorrak (webgunearen bidez betetzen dira).
- Pertsona edo entitate eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiriaren fotokopia (IFZ, eraketa-eskiriturak, dagokion erregistroak emandako ziurtagiria, etab.).
- Bere izenean dagoen kontu korrante baten titulartasuna egiaztatzen duen agiria (hirugarren baten fitxa).
- Erantzukizunpeko adierazpena, honako informazio hau jasoko duena:
  - a) Eskatzailea erakundearen ordezkaria dela eta ordezkari-tza hori egiteko ahalmen nahikoa duela.
  - b) «Hondarribiko bonoak» dirulaguntza programa kudeatzeko ezarritako oinarriak eta prozedura ezagutzen eta onartzen dituela.
  - c) Programarekin bat egiten duela eta bertan ezarritako konpromisoak betetzeko konpromisoa hartzen duela.
  - d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
  - e) Hala badagokio, dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta dituela.
  - f) Pertsona edo erakunde horrek ez duela betetzen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan pertsona edo erakunde onuradun izateko ezarritako debeku-egoerarik.
  - g) Ez dagoela zehatuta dirulaguntzen eta laguntza publikoen onuradun izateko debekuarekin, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikulua araberako (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeago Bizitzarako Legearen testu bategina onartzen duena) edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren 23.2 artikulua araberako.
  - h) Hondarribiko Udalari beharrezko egiaztapenak egiteko bai-mena ematen diola.

Erantzukizunpeko adierazpen batean jasotako edozein datu edo informazio ez bada zehatza, faltsua edo oinarritzakoa, edo Administrazio eskudunean ez bada aurkezten adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, ezingo da jarraitu ukitutako eskubidea edo jarduera erabiltzen gertakari horien berri izaten den unetik, eta, horrez gain, ez-betetze egoeran bonuak trukatzegatik jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira.

Era berean, erantzukizun penal, zibil edo administratiboak ekar ditzake (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

Datu pertsonalen tratamendua Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (pertsona fisikoen babesari buruzkoa) ezarritakoaren araberako egingo da.

### 12. Atxikitako entitateen betebeharrak eta konpromezuak.

Hauek dira atxikitako erakundeen betebeharrak:

Kanpaina honetan parte hartu ahal izateko, atxikitako erakundeek alta eman beharko dute, beren ordenagailuetatik eta/edo gailu mugikorretatik, web orrian [www.hondarribikobonoak.eus](http://www.hondarribikobonoak.eus).

### 11. Documentación a presentar para la adhesión.

El establecimiento o actividad deberá presentar la siguiente documentación:

- Datos generales para la adhesión (se cumplimentan a través de la web).
- Fotocopia del documento acreditativo de la identidad de la persona o entidad solicitantes (NIF, escrituras de constitución, certificado expedido por el registro correspondiente, etc.).
- Documento acreditativo de la titularidad de una cuenta corriente a su nombre (ficha de tercero).
- Declaración responsable, que constará de la siguiente información:
  - a) Que el solicitante es representante de la entidad y que ostenta poder suficiente para dicha representación.
  - b) Que conoce y acepta las bases y el procedimiento establecido para gestionar el programa «Hondarribiko bonoak».
  - c) Que se adhiere al programa y se compromete a observar los compromisos establecidos en el mismo.
  - d) Que se encuentra al corriente de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.
  - e) Que se encuentra al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones, en su caso.
  - f) Que no concurren en la persona o entidad ninguna de las circunstancias de prohibición recogidas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones para obtener la condición de persona beneficiaria.
  - g) Que no está sancionada con la prohibición de ser beneficiaria de subvenciones y ayudas públicas en virtud del artículo 23.2 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista Contra las Mujeres, o de la Ley Orgánica 3/2007, de 30 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.
  - h) Que autoriza al ayuntamiento de Hondarribia a realizar las comprobaciones oportunas.

La inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, de cualquier dato o información que se incorpore a una declaración responsable, o la no presentación ante la Administración competente de la documentación que sea en su caso requerida para acreditar el cumplimiento de lo declarado, determinará la imposibilidad de continuar con el ejercicio del derecho o actividad afectada desde el momento en que se tenga constancia de tales hechos, además de la devolución de los importes recibidos por el canje de los bonos en situación de incumplimiento de los requisitos de la convocatoria.

Asimismo, podría acarrear responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar (artículo 69.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas).

El tratamiento de los datos personales se llevará a cabo según lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos de Personales y garantía de los derechos digitales, así como en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas.

### 12. Obligaciones y compromisos de las entidades adheridas.

Son obligaciones de las entidades adheridas:

Para poder participar en esta campaña, las entidades adheridas deberán darse de alta, desde sus ordenadores y/o dispositivos móviles, en la página web [www.hondarribikobonoak.eus](http://www.hondarribikobonoak.eus).

Erabiltzailea establezimendurako aktibatuko da, Udalak atxikitze-eskaera behar bezala egin dela egiaztatzen duenean.

Une horretatik aurrera, eta 5. atalean deskribatutako epeak kontuan hartuta, establezimenduak deskontu-bonuak eman ahal izango dizkie 30 € baino gehiagoko erosketak egiten dituzten eta 6. ataleko baldintzak betetzen dituzten bezeroei.

Trukerako epean, establezimenduak jasotzen dituen bonuak baliozkotu eta justifikatu beharko ditu, [www.hondarribikobonoak.eus](http://www.hondarribikobonoak.eus) webgunearen bidez.

Atxikitako establezimenduei programari buruzko dokumentazioa eta materiala emango zaie, eta programa indarrean da goen bitartean herritar guztientzako ikusgai jarri beharko dute.

Programa sustatzeko materialak, gutxienez, honako agiri hauek izango ditu:

– «Hondarribiko bonoak» programan parte hartu izana egiaztatzen duen kartela (establezimenduaren arabera beharrezkoak direnak).

– Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari buruzko informazioa.

– Kanpainaren arduradunek, programak behar bezala funtziona dezan, merkataritza-establezimenduei eman beharreko beste edozein dokumentazio.

### 13. Aplikatutako hobarien justifikazioa eta ordaintzeko prozedura.

#### 13.1. Justifikazioa.

Justifikazioa webgunearen bidez egingo du establezimenduak [www.hondarribikobonoak.eus](http://www.hondarribikobonoak.eus). Bonuak balioztatzeke unean, dagokion fakturaren argazkia ere igo beharko duzu.

Fakturaren argazkian deskontu-bonua aplikatu zaion pertsonaren NANA agertu behar da, baita fakturaren zenbatekoa deskontuarekin eta deskonturik gabe.

Establezimenduak ez ditu ordainketa-eskaerak edo jatorrizko bonuak udaletxera ekarri behar. Faktura eta jatorrizko bonuak saltokian gorde beharko dituzu bonuen kanpaina amaitu eta 6 hilabete igaro arte.

Establezimendu batek Udalarekin zorrak baditu, konpentsazio bat egingo da bere alde aitortutako kredituarekin.

Atxiki gabeko establezimenduei ez zaie dirurik ordainduko, eta 5. puntuan ezarritako epetik kanpo egindako gastua ere ez zaie itzuliko.

#### 13.2. Atxikitako establezimenduei egin beharreko ordainketen zenbatekoa.

Establezimendu bakoitzari hoberia (10 €) establezimendu horretan erabilitako bonu kopuruarekin biderkatuz ateratzen den zenbatekoa ordainduko zaio. Nolanahi ere, bonuak aplikazioak baliozkotu beharko ditu.

Bonuen erabilera gehienez 10 €-ra mugatuko da erosketa bakoitzean.

#### 13.3. Atxikitutako establezimenduei ordainketa epeak.

Udalak aplikazioaren bidez jasoko du balidatutako bonuen informazioa, eta, hura onartu eta ebatzi ondoren, ordainketa egingo da udal administrazioak bere ordainketa-obligazioak izapidetzeko ezarritako epeetan.

### 14. Entitate laguntzailea.

Bidasoa Bizirik o Amuitz Hondarribiko Merkatarien elkarteak laguntza hauen kudeaketan erakunde laguntzaile gisa jardun ahal izango dute. Erakunde horiek ezin izango dute diru-kopururik ko-

El usuario se activará para el establecimiento una vez el Ayuntamiento compruebe que la solicitud de adhesión se ha realizado correctamente.

A partir de ese momento, y teniendo en cuenta los plazos descritos en el apartado 5, el establecimiento podrá aplicar los bonos-descuento a los clientes que realicen compras superiores a 30 € y que cumplan con los requisitos del apartado 6.

Durante el plazo de canje, el establecimiento deberá validar y justificar los bonos-descuento que aplique, todo ellos a través de la página web [www.hondarribikobonoak.eus](http://www.hondarribikobonoak.eus).

A los establecimientos adheridos se les facilitará la documentación necesaria y el material promocional del programa que durante la duración del mismo deberá estar destacado y visible a toda la ciudadanía.

El material promocional del programa como mínimo constará de la siguiente documentación:

– Cartel que acredite la participación en el programa «Hondarribiko bonoak» (aquellos que fueran necesarios por establecimiento).

– Información sobre la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

– Cualquier otra documentación que los responsables de la campaña consideren necesaria facilitar a los establecimientos comerciales para el correcto funcionamiento del programa.

### 13. Justificación de las bonificaciones aplicadas y procedimiento de pago.

#### 13.1. Justificación.

El establecimiento realizará la justificación a través de la página web [www.hondarribikobonoak.eus](http://www.hondarribikobonoak.eus). En el momento de validar los bonos, deberá subir también la fotografía de la factura correspondiente.

En la fotografía de la factura deberá figurar el DNI de la persona a la que se le ha aplicado el bono descuento, así como el importe con y sin descuento.

El establecimiento no debe traer la solicitud de pago o los bonos originales al ayuntamiento. Deberá conservar la factura y los bonos originales en su establecimiento hasta transcurridos 6 meses desde la finalización de la campaña de bonos.

Si un establecimiento tiene deudas con el Ayuntamiento se realizará una compensación con el crédito reconocido a su favor.

No se abonará cantidad alguna a los establecimientos no adheridos, ni se pagará el gasto realizado fuera del plazo establecido en el punto 5.

#### 13.2. Importe de los pagos a realizar a los establecimientos adheridos.

Se abonará a cada establecimiento el importe resultante de multiplicar la bonificación (10 €) por el número de bonos utilizados en dicho establecimiento. En todo caso, los bonos deberán estar validados por la aplicación.

El uso de bonos se limitará a un importe máximo de 10 € en cada compra.

#### 13.3. Plazos de pago a los establecimientos adheridos.

El Ayuntamiento recibirá la información de los bonos validados a través de la aplicación y, una vez aprobada y resuelta ésta, se procederá al pago en los plazos establecidos por la Administración municipal para la tramitación de sus obligaciones de pago.

### 14. Entidad colaboradora.

Bidasoa Bizirik o Amuitz Hondarribiko Merkatarien elkarteak laguntza hauen kudeaketan erakunde laguntzaile gisa jardun ahal izango dute. Dicha entidad no podrán cobrar cantidad alguna por la

bratu laguntza-eskabideak izapidetzeagatik, eta ezin izango dute izapidea beste zerbitzu batzuk kontratatzearen baldintzapean jarri.

#### 15. Ez-betetzeak.

1. Programa honen ez-betetzetat joko dira jarraian zerrendatzen diren kasu hauek:

a) Agindu honetan ezarritako betebeharrak ez betetzea, hala entitate laguntzailearentzat 14. oinarrian jasotakoak, nola merkataritza-establezimenduentzat 12. oinarrian xedatzen direnak.

b) Establezimenduren batek 12. oinarrian adierazitako betebeharren bat betetzen ez badu, baja emango zaio berehala programa honetatik.

2. Aurreko apartatuan jasotzen diren ez-betetzeek gainera, programan parte hartzen duten establezimenduek ez-betetzen bat egiten badute, establezimendu horiek «Hondarribiko bonoak» programarekin duten atxikipena bertan behera utzi ahal izango da.

Era berean, ez-betetzeek erantzukizun administratiboa, penala edo zibila beren gain hartzea ekar dezakete.

#### 16. Ikuskapena.

Hondarribiko Udalak, programaren arduradun den heinean, egokitzat jotzen dituen egiaztapenak, ikuskapenak eta gainerako kontrol guztiak egin ahal izango ditu, ziurtatzeko baliabide publikoak ongi erabiltzen direla eta programa hau modu egokian garatu eta aplikatuko dela.

#### 17. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Ordenantza honen babesean lortutako dirulaguntza bateragarria izango da beste administrazio publiko batzuetatik edo entitate pribatuetatik eta eskualdeko, estatuko, edo nazioarteko entitateetatik jasotako beste dirulaguntza, sostengu, diru-sarrera edo baliabide ororekin, betiere gainfinantzaketarik gertatzen ez bada, eta, horren ondorioz, bonuaren balioa galtzen bada erosketaren kostua gainditzen duen zenbatekoan, galera horrek ez du inolako itzulketarik eragingo.

#### 18. Datuen babesia.

Datuen babesari dagokionez, programan parte hartzen duten establezimenduak behartuta daude honako hauek betetzera: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoa (95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena, hau da, datuak babesteko erregelamendu orokorra); eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.

Dirulaguntzen programa honetan, EAEko Ganberak izango dira tratamenduaren erantzuleak, aipatutako araudian ezarritako baldintzetan eta araudian ezarritako betebeharrak eta baldintzekin.

#### Azken xedapena.

Alkateak, ebazpen baten bidez, oinarrietan funtsezkoak ez diren aldaketak egin ditzake, egoerak edo bestelako antolaketa-arrazoiek hala eskatzen badute, eta horren berri emango du Hondarribiko Udaletxeko Iragarki Taulan, egoitza elektronikoa.

Ordenantza hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Hondarribia, 2026ko martxoaren 4a.—Igor Enparan Araneta, alkatea. (1539)

tramitación de solicitudes de ayuda, ni condicionar la tramitación a la contratación de otros servicios.

#### 15. Incumplimientos.

1. Constituirán supuestos de incumplimiento en el presente programa:

a) El incumplimiento de las obligaciones establecidas en la presente Orden, tanto para las entidades colaboradoras según la base 14 como para los establecimientos comerciales según la base 12.

b) El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones reflejadas en la base 12 por parte de los establecimientos supondrá la baja inmediata de este programa.

2. Además de los incumplimientos recogidos en el apartado anterior, en el supuesto de que se operase algún incumplimiento por parte de los establecimientos adheridos, el Ayuntamiento de Hondarribia, podrá cancelar la adhesión de los mismos al programa «Hondarribiko Bonoak».

Asimismo, los incumplimientos pueden acarrear la asunción de responsabilidad administrativa, penal y/o civil.

#### 16. Inspección.

El Ayuntamiento de Hondarribia, como responsable del programa, se reserva el derecho de realizar cuantas comprobaciones, inspecciones y demás medidas de control estime oportunas para velar por la correcta aplicación de los recursos públicos y para verificar el correcto desarrollo y aplicación del presente programa.

#### 17. Compatibilidad con otras ayudas.

La subvención obtenida al amparo de esta Orden será compatible con cualquier otra subvención, ayuda, ingreso o recurso procedente de otras Administraciones Públicas, y/o por entidades privadas, regionales, nacionales o internacionales siempre y cuando no haya sobrefinanciación, contemplando como efecto de la misma la pérdida de valor del bono en la cantidad que pudiera rebasar el coste de la compra sin que tal pérdida dé lugar a reintegrar alguno.

#### 18. Protección de datos.

Los establecimientos adheridos están obligados, en materia de protección de datos, a cumplir con el Reglamento (EU) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (reglamento general de protección de datos) y con la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantías de derechos digitales.

En el presente programa de subvenciones podrá ser responsable del tratamiento Bidasoa Bizirik o Amuitz Elkartea en los términos establecidos en la normativa referenciada y con las obligaciones y condicionamientos que la misma establece.

#### Disposición final.

El Alcalde, mediante resolución, podrá realizar modificaciones no sustanciales en las presentes bases si las circunstancias u otras razones organizativas así lo aconsejaren, dando la oportuna publicidad de ello en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento de Hondarribia de la sede electrónica.

La Ordenanza entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Hondarribia, a 4 de marzo de 2026.—El alcalde, Igor Enparan Araneta. (1539)

I. ERANSKINA

- 64. multzoa. Establezimendu iraunkorretan egiten den jan-gaiaren, edarien eta tabakoaren txikizkako merkataritza.
  - 65. multzoa. Establezimendu iraunkorretan eginiko elikagaiak ez diren industria-produktuen txikizkako merkataritza.
  - 662. multzoa. Txikizkako merkataritza mistoa edo integratua.
  - 836. multzoa. Osasun laguntzaile teknikoak eta fisioterapeutak.
  - 971. multzoa. Garbitegiak, tindategiak eta antzeko zerbitzuak.
  - 972. multzoa. Ile-apaindegiak eta edertasun-apaindegiak.
  - 9731. multzoa. Argazkigintza-zerbitzuak.
  - 975. multzoa. Markogintza-zerbitzuak.
  - 979.9. multzoa. Beste zerbitzu pertsonal batzuk.
- Berariaz kanpoan geratzen dira:
- 647. taldeko jarduerak, elikagaien eta edarien txikizkako merkataritza oro har, establezimenduek 400 metro koadrotik gorako salmenta-aretoa dutenean.
  - 655. taldeko jarduerak (Erregaien, erregaien eta lubrifika-tzaileen txikizkako merkataritza).
  - 646. taldeko jarduerak, tabako-laboreen eta erretzaileen-tzako gaien txikizkako merkataritza.

ANEXO I

- Agrupación 64. Comercio al por menor de productos alimenticios, bebidas y tabaco realizado en establecimientos permanentes.
  - Agrupación 65. Comercio al por menor de productos industriales no alimenticios realizado en establecimientos permanentes.
  - Agrupación 662. Comercio mixto o integrado al por menor.
  - Agrupación 836. Ayudantes técnicos sanitarios y fisioterapeutas.
  - Agrupación 971. Lavanderías, tintorerías y servicios similares.
  - Agrupación 972. Salones de peluquería e institutos de belleza.
  - Agrupación 9731. Servicios fotográficos.
  - Agrupación 975. Servicios de enmarcación.
  - Agrupación 979.9. Otros servicios personales.
- Quedan expresamente excluidas:
- Las actividades del grupo 647, comercio al por menor de productos alimenticios y bebidas en general, cuando los establecimientos cuenten con una sala de ventas superior a 400 metros cuadrados.
  - Las actividades del grupo 655, Comercio al por menor de combustibles, carburantes y lubricantes.
  - Las actividades del grupo 646, Comercio al por menor de labores tabaco y artículos de fumador.